

## SALATU BEARREZ

I salatu naiean  
nator, neskatx oker;  
ez dauskun, ez, euskeraz  
irakur nai ezer.

«Ez dakitu», diñon nasai,  
-ba ete lotsarik?-.  
«Ez dakit irakurten  
ez dakit izpirik».

Ta zelan don begitan  
-aragi-lei-susper-  
arinkeriz, arroputz  
ainbat erdel paper?

Gaiztoa ire jarduna,  
nik ezin ulertu;  
euskal oituren euskai  
leen lez ez aunagu.

Ta i olan lur egifta,  
nasaikor ikusiz,  
biotza jonat odol,  
barnea garrasiz.

Euskerarik, federik,  
guk be ez ba'jonagu,  
euskal solo joria  
biur bedi trisku.

*Igotz*